

cillamente que esa deuda la habia contraido con un hombre á quien debia un señalado servicio.

D. Antonio de Trueba, á quien costaba trabajo encerrar en su pecho ese nombre querido, ha pagado religiosamente la cuenta de los honorarios presentada por este.

El nombre de su salvador ha bajado al sepulcro, ó mejor aún, ha subido al cielo unido indisolublemente á el alma del poeta.

SABINO DE GOICOECHEA.

URRUTIKO INCHAURRAK.

Baserritar baten Amerikatik bere lur maiterako etorrera.

Pozez Amerikara
joan ninzan gazterik,
etzalako iñon lur
oberik besterik;
bañan an desengañuz
ta penaz beterik,
eztakart echerako
urteak besterik.

Zorion billa joanik
ainbeste bidean,
urteak echeratzen
ditut azkenean;
joan bañon pobreago
bainator urean,
iru dukat eztira
nere podorean.

Onzi zarrean nator
len berriyan joana,
eta emen chit pozik
detanean lana;
soldatik eztet bañan
badaukat zer jana,
Amerikan prankotan
paltatu zaidana.

Pobre, an beste asko
oi diranen gisan,
ez naiz portunosoa
Amerikan izan;
nere zori gaistoa
arantz joan bainitzan,
ojala lur neretik
irten ezpanintzan.

Kontentuz joanak nere
moduban aruntza,
zenbait pozik jirako
lirake onuntza;
bañan nola baitiran
bear iru onza,
nere gisan arkitzen
zaie poltsa utsa.

Irabaz bide guchi
eta maiz bear jan,
zenbait miseri triste
igaro det nik an;
pozez banintzan ere
Amerikara joan,
zartzerako orra zer
poz andik dakartan.

Ezta iya sayatu
ez naizen lanikan,
eta eztet sobratu
ezer lanetikan;
bada ez egiñ amets
danik Amerikan,
eguzkitan ari ta
jaten ogirikan.

Bañan ez dira gaizki
ez, an ere denak,
baitira ta ez guchi
ongi dirarenak;
neri gaizki joan bazait
neretzako penak,
oñazerikan ez du
miñik ezdubenak.

Noiz bait naigabeturik
neraman bizitzan,
lur ura utzitzera
erabaki nintzan;
eta eztet damurik,
irten ezpanintzan,
denbora guchi barru
an ilko bainintzan.

Nairikan eragotzi
arako pausoak,
zenbait lan egiñ zuten
nere gurasoak,
bañan nik entzun gabez
beren itz gozoak,
nere penaz ziran ill
izandu gaisoak.

Bueltan nator urean
diruz ez chit sendo,
eta ez ere nere
osasunaz ondo,
molde onekoa naiz
ontzitik irtengo,
ai zer kolpea detan
echean emango.

Ara non dan Franziya,
ara EspaÑiya,
ara non dan Jaizkibel
deritzon mendi;
ara Ernio, ara
Aya-ko arriya,
ara non dan ni jaio
nintzan baserriya.

Ez nabill ametsetan
ez, dira egiyak,
¡o! zéin ederrak dauden
gure alderdiyak;
gaur ikustez pozturik,
malkotan begiyak
jartzen zaizkit errio
bi egiñik biyak.

Beti bitzu naiz lur
nerearen miñez,
onera nai ta onuntz
jiratu eziñez;
urik egon ezpalitz
esaten det ziñez,
lenaztandik nintzala
etorriko oñez.

Miratu ditut milla
fama duten lurruk,
bañan an ere daude
alderdi laburrak;
sinisturik dirala
erdiyak gezurrik,
emen nai ditut utzi
nik nere ezurrik.

Aruntz joan nintzalarik
toki obe billa,
eztet batcho arkitu
miraturik milla;
ala nator echera
penaz erdi illa,
nitaz eskarmentu bat
gertatu dedilla.

RAMON ARTOLA.

